

TEODORO HERNANDORENA
II. IPUIN LEHIAKETA

PARKE MAGIKOA

IZENGOITIA: PIPI

ADINA: 9 URTE

PARKE MAGIKOA

Bazen behin, hemendik ez oso urrun zegoen herri bat. Ez zuten jolasteko tokirik. Herria gris kolorekoa zela ematen zuen, laino gris handiz beteta zegoelako. Herria ere triste zegoen beti. Jendea ez zen inoiz kalera ateratzen, eta kaleetan ez zegoen inor. Ez zen inoiz eguzkia ateratzen eta eguraldi txarra egiten zuen beti. Herri horretako umeak triste bizi ziren. Egunero ikastolatik atera ondoren, etxera joaten ziren eta arratsalde osoa telebista ikusten pasatzen zuten. Herrian ez zegoen ezer beraientzat.

Umeen gurasoak kezkatuta zeuden, beraien umeak hain aspertuta eta hain lodi ikusteagatik. Horregatik, umeen gurasoak elkartu egin ziren zerbait egiteko. Berehala ikusi zuten, umeek denbora pasatzeko parke bat behar zutela eta parke bat eraikitzea erabaki zuten.

Hilabete batzuk beranduago, parke oso polit bat zegoen herriaren erdian. Berria zen eta gauza asko zituen: txirristak, kulunkak... Umeak oso pozik zeuden eta egunero joaten ziren parkera elkarrekin jolasteko. Txirristak izugarrizko arrakasta zuen txikien artean eta kulunkak helduagoen artean. Azkenean umeak ikastolatik atera ondoren parkera joaten ziren eta ondo baino hobeto pasatzen zuten elkarrekin. Orduak eta orduak pasatzen zituzten korrika, harrapaketan, gordeketan... parkea oso handia baizen.

Baino egun batean, umeak egunero bezala ikastolatik atera ondoren parkera joan ziren eta denak batera jolastera joan ziren egunero bezala. Bat-batean, ume batzuk txirristatik jaisten hari zirela, txirrista saltoka hasi zen, gero korrika, umeen atzetik harrapaketan... Txirristak umeekin jolastu nahi zuen, ume bat izan nahi zuen. Kulunkak ere umeekin jolasten hasi ziren. Umeak harrituta zeuden, txirrista eta kulunkak beraiekin jolastu nahi zuten. Baino gurasoak zeudenean, txirrista eta kulunkak geldirik geratzen ziren beldurra zutelako.

Hurrengo egunetan, umeak txirrista eta kulunken lagun egin ziren eta beraiekin jolasten pasatzen zituzten arratsalde osoak. Txirristak eta kulunkek askotan beraien istorio bitxiak

kontatzen zizkien umetxoei. Parkea herriko zonarik alaiena bihurtu zen. Egun batean txirrista eta kulunkak oso triste zeuden beraien familiarekin egon nahi zutelako. Umeak oso triste jarri ziren txirrista eta kulunkak triste ikustean. Orduan ume bati gauza bat bururatu zitzaion: herrian parke gehiago egitea. Hurrengo egunean, ume guztiek herrian parke gehiago nahi zituztela esan zien beraien gurasoei. Herrian bat bakarrik zegoela eta oso txikia zela ume asko zeudelako. Hauek poztu egin ziren beraien seme – alaben proposamena entzutean eta segituan udaletxera joan ziren alkate jaunarekin hitz egiteko.

Hurrengo astean, guraso guztien lehendakariari udaletxearen eskutitz bat iritsi zitzaion. Bertan jartzen zuenez, parke gehiago eraikitzeke proposamena onartu zutela jartzen zuen. Segituan guraso eta ume guztiei kontatzera joan zen eta denak oso pozik jarri ziren albistearen entzun ondoren.

Hurrengo hilabeteetan, 5 parke gehiago jarri zituzten txirrista eta kulunka gehiagorekin. Txirrista eta kulunka berriak parke zaharrekoen familiakoak ziren eta denak oso pozik jarri ziren berriro elkar ikusi zutenean. Hemendik aurrera, egunero herriko parke guztiak jendez gainezka egoten ziren, herriak beste kolore bat zuen, alai zegoen. Ume guztiek txirrista eta kulunkekin jolasten ziren harrapaketan, gordeketan... eta umeek gauzak ondo tratatzen ikasi zuten. Oso giro ona egoten zen arratsaldero. Ume guztiak arratsaldearen zain egoten ziren beti, beraien lagun ziren txirrista eta kulunkekin jolasteko.

AMAIERA
